

gkz berdea

7. zk. 2015eko uztaila

Fakultateko Kontsumoa: Hiruhilekoaren Datuak

PAPERAREN KONTSUMOA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

APIRILA	MAIATZA	EKAINA
18.000 unitate	34.500 unitate	33.500 unitate

Urteko lehenengo sei hilekoan, paper kopuru hau kontsumitu da (orri kopurua adierazi da):



Azken hiruhilekoko bilakabidea iazkoaren antzekoa izan da, nahiz eta ekainean paper gehiago kontsumitu den. Izan ere, ekainean Fakultatean inprimatu da lehenengo ikasturteko ikasleei matrikula egitean ematen zaizkien gutun-azalen edukia (beste urte batzuetan Argitalpen Zerbitzuetan egin da). Horrez gain, ekainean Unibasq-ek bisita egin du graduak akreditatzeko, eta, horren eraginez, paper gehiago erabili da Fakultatean.


KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2015eko BIGARREN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	5 unitate

Banakako inprimagailuetarako 5 kartutxo unitate aldatu dira.

PAPERBIRZIKLATUA (Fakultatea)

Beotibar Recycling, SLk (Bizkaiko Campuseko edukiontzi urdinetan sartzen den papera biltzeaz arduratzen den enpresa) ematen dizkigu gure Fakultatean bildutako kilogramoen zenbatekoak. Hau izan da 2015eko lehenengo sei hilekoaren bilakabidea:



Maiatzean 680 kg paper birziklatu dira, eta apirilean, berriz, 440 kg: ekainaren pare dago ia-ia (450 kg izan ziren).

ONTZIAK/PLASTIKOA (Fakultatea)

APIRILA	MAIATZA	EKAINA
79 kg	98 kg	52 kg

Kg = kilogramoak (litro bat paper = 0.32 kg eta litro bat plastiko = 0,05 kg)

Hiruhileko honetan, maiatzean jaso dira beste inoiz baino plastikozko ontzi gehiago. Ekainean jarduera murrizteak (azterketak baino ez daude) urteko erregistro txikiena ekarri du.

LED Argiteria Ezartzea Fakultateko Eremuetan

GKZ Ekoscan-en hirugarren buletinak azaldutakoarekin bat etorriz, Fakultatearen Ingurumena Hobetzeko azken Planak energia elektrikoaren kontsumoa optimizatzea du helburu. Horretarako, besteak beste, ikuskaritza energetikoa egin zen Campuseko eraikin guztietan (gure Fakultatean barne). Ikuskaritza horretan atzeman zen Fakultateko zenbait eremutan (bereziki, eraberritutako eremuan) argiztapena zahar xamarra eta behar ez bestekoa dela. Eremu horretako argiztapena hobetu ahal izateko, Fakultateak apurka-apurka ordeztu nahi du lehengo halleko argiteria, horren ordez LED teknologia jarritz. Espero dugu hurrengo buletinean egindako lanen berri eman ahal izatea.



LED Teknologia

LED lanparak denbora gutxian bihurtu dira "kontsumo txikiko lanparak" (fluoreszente konpaktuak) deritzenen alternatiba argia. Garestiak izan arren, abantailak dituzte, hala nola:

Gehiago irauten dute: lanpara goriek 1.000 bat ordu irauten dute, halogenoek 2.000 eta 4.000 ordu bitartean, eta fluoreszenteek eta kontsumo txikikoek 5.000 eta 8.000 artean. LED lanparek, berriz, 50.000 ordu inguruko bizitza erabilgarria dute, eta berdin dio zenbat aldiz pizten edo amatatzen dituzun edo zenbat denbora ematen duten piztuta. Beraz, horrek gutxienez 10 urtez bonbillaz ahaztea dakar.

Argia ez da gutxitzen: lanpara halogenoen eta kontsumo txikikoen argia murriztu egiten da erabili ahala (zenbait kasutan, % 30 baino gehiago). Alabaina, LED lanparek argiztapen berari eusten diote, ia aldatu gabe, erabilgarri dauden artean. Ez dute kliskarik egiten: lanpara fluoreszenteen eta kontsumo txikikoen arazoetako bat da argiak etengabe egiten duela kliska, eta hori nekagarri izan daiteke. LED lanparek, aldiz, ez dute kliskarik egiten.

Berehala pizten dira: piztean, LED lanparek berehala ematen dute eman dezaketen argi guztia. Fluoreszenteen edo kontsumo txikiko modelo askok zenbait segundo behar dituzte eman dezaketen argi guztia emateko.



Baina... Zer-nolako lanparak hobesten dira oro har ingurumenaren ikuspegitik?

Estatu Batuetako Energia Sailak agindutako azterlan bat galdera horri erantzuten saiatu da; horretarako, hiru lanpara motaren (tradizional goriak, fluoreszente konpaktuak eta LEDak) ingurumen eragina erkatu du, eta energia kontsumoa eta bonbilla mota bakoitza ekoizteko, garraiatzeko, erabiltzeko eta botatzeko behar diren natur baliabideak aztertu ditu.

Modelo bakoitzaren ingurumen eragina aztertzeko, 15 inpaktu ezberdin hartu ziren aintzat, berotze globalari egin dakioken ekarpena, sortutako hondakinak eta airearen, lurzorua eta uraren kutsadura barne.

Analisiak erakutsi zuen hala LED lanparak nola fluoreszente konpaktuak hobeak direla goriak baino; izan ere, piztuta daudenean askoz ere energia gutxiago kontsumitzen dute. Alabaina, fluoreszente konpaktuen eta LEDen energia kontsumoa nahiko antzekoa denez, horien arteko aldeak (ingurumen eraginari dagokionez), funtsean, lotura du ekoizteko erabiltzen diren energiarekin eta baliabideekin.

Eginiko azterlanarekin bat etorriz, LEDek abantaila handixeagoa zuten fluoreszente konpaktuek baino, aztertutako ia alderdi guztietan. Fluoreszenteek atal bakar batean irabazi zuten: ekoiztean sortutako hondakinenean. Izan ere, LEDek beroa banatzeko dute, aluminioz eginikoa, lanpararen hondoa. Bada, tresna horrek bonbillak sortutako beroa xurgatzen du, eta ondoren banatu; horrela, gehiegi berotzea saihesten da. Arazoa da beroa banatzekoak egiteko erabiltzen den aluminioa ateratzeko, purifikatzeko eta prozesatzeko prozesuan energia gastu handia behar dela eta hondakin arriskutsuak sortzen direla, hala nola azido sulfurikoa.

Azterlana egin zuen ikertaldeak zenbatetsi du bost urteko epean LED lanparek erdira murriztuko dutela beren ingurumen eragina; beraz, fluoreszente konpaktuak garbi gaindituko dira, horietan ez baita hobekuntza nabarmenik aurreikusi.

Eta... Zer egin dezaket nik udan?

Uda sasoiari gauden honetan, zenbait aholkutzak ematen dizkizugu, baliabideen kontsumoa eraginkorragoa izandadin:

Hobe da haizagailua erabiltzea, aire girotua erabiltzea baino, tenperatura 3-5° C murrizteko; izan ere, askoz ere elektrizitate gutxiago kontsumitzen du. Haizagailu bat nahikoa izan daiteke hainbat kasutan erosotasun onargarria mantentzeko.

Aire girotua dela eta, ez jaitsi termostatoa 20° C-tik; izan ere, hortik beherako gradu bakoitzak % 8 areagotzen du kontsumo elektrikoa. Onena tenperatura 24° C eta 26° C artean mantentzea da.

Kokatu aire girotua/haizagailua eguzkiak gutxien ematen duen lekuan. Bero handiko egunetan, piztu ekipoa zure etxea berotu baino lehen, eta ez ireki leihoak.

Klimatizazio beharrianak murrizteko, instalatu olanak eta persianak, eta eduki jaitzita egunez.

Kontsumitu produktu freskoak eta tokikoak, frutak eta barazkiak. Txorrotaren azpian garbitu beharrenean, garbi itzazu ontzi batean: egunean hamar litro ur aurreztu ahal dituzu.

Saihestu bainuontzia, eta dutxa hartu: horrela, egunean 60 litro ur galtzea saihestuko duzu.

Urtean argi gehien duten egunak dira: baliatu eguneko argia.

Deskonektatu telebista eta kargatzekoak. Tresna horiek erabiltzen ez direnean duten "kontsumo fantasma" etxeko elektrizitatearen kontsumoaren % 10 izan daiteke.

Izan hozkailua 4° C eta 6° C artean, eta izozkailua -18° C eta -15° C artean. Utzi jatekoak hozten hozkailuan sartu baino lehen.

Datuen iturriak:

- <http://ideasana.fundacioneroski.es/web/eu/09/medio/>
- <http://www.mundo-geo.es>
- <http://www.magrama.gob.es>

